Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko urriaren 31, ostirala — 209 — Viernes, a 31 de octubre de 2025



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA

*Ingurumen-inpaktuari buruzko txostena, Bidegi SA enpresak kudeatzen dituen AP-8 eta GI-20 errepideetan zeharkako drainatze-lan batzuk birgaitzeko Eraikuntza-proiektuarena (II. fasea).*

*1. Aurrekariak.*

Bidegi SAk, 2025eko ekainaren 6an, Bidegi SAk kudeatutako AP-8 eta GI-20 errepideetan zeharkako drainatze-lan batzuk birgaitzeko eraikuntza-proiektuaren (II. fasea) ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua hasteko eskaera aurkeztu zuen Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusi honetan, ingurumen-dokumentuarekin eta proiektuaren planoekin batera.

Birgaitzeak zeharkako 17 drainatze-lani eragingo die, eta, horietako bitan –C-451 eta C-452–, tinkatze bidezko berritzeak, kasu batean, eta birgaitzeak, beste batean, ES2120010 - Oriaren itsasadarra KBEaren barruan jardutera behartzen dute; eremu babestu bat da, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 37. artikuluaren arabera.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikuluaren arabera, espazioan izango dituen ondorioen ebaluazio egokia egin beharko da, Natura 2000 Sareko leku baten kudeaketarekin zuzeneko harremanik ez badu edo kudeaketarako beharrezkoa ez den edozein plan, programa edo proiektuk aipatutako guneetako espezie edo habitatetan eragin nabarmena izan badezake, banaka edo beste plan edo proiektu batzuekin batera. Hori aplikatu beharreko arauen arabera egingo da, bai eta Estatuko oinarrizko legerian eta autonomia-erkidegoek emandako babes-arau gehigarrietan ezarritakoaren arabera ere, kontserbazio-helburuak kontuan hartuta.

Ildo horretan, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 7.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egingo da, aipatutako legearen 45. artikulutik 48. artikulura ezarritako prozedurari jarraituz, I. eta II. eranskinetan ageri ez diren arren Natura 2000 Sareko gune babestuetan zuzenean edo zeharka nabarmen eragin dezaketen proiektuetan. Ildo beretik, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.E eranskinaren 3. apartatuak ezartzen duenez, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren xede izango dira beste proiektu batzuk, II.D eranskinekoak ez direnak, baldin eta, zuzenean edo zeharka, bakarrik edo beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera, eragin nabarmena izan badezakete naturagune babestuetako batean edo natura-ondarea kontserbatzeko araudiaren arabera babes-araubidea duten naturaguneetan.

Beraz, 21/2013 Legearen 46. artikuluan eta 10/2021 Legearen 79.2 artikuluan zehaztutako kontsulta-izapidea egin ondoren, Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen-inpaktuaren txostena egitea. Txosten horretan, 21/2013 Legearen III. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.F

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD

*Informe de impacto ambiental del Proyecto de construcción para la rehabilitación de varias obras de drenaje transversal en la AP-8 y la GI-20 gestionadas por Bidegi S.A. (fase II).*

*1. Antecedentes.*

Bidegi S.A. a fecha 6 de junio de 2025, presentó ante esta Dirección General de Administración Ambiental la solicitud de inicio, acompañada del documento ambiental y los planos del proyecto, de la evaluación de impacto ambiental simplificada del proyecto de construcción para la rehabilitación de varias obras de drenaje transversal en la AP-8 y la GI-20 gestionadas por Bidegi S.A. (fase II).

La rehabilitación afectará a 17 obras de drenaje transversal y, en dos de ellas –la C-451 y la C-452–, la renovación mediante hinca, en un caso, y la rehabilitación en otro, obligan a actuar en el interior de la ZEC ES2120010 - Ría del Oria, un espacio protegido de acuerdo con el artículo 37 de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi.

El artículo 46.4 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, de Patrimonio Natural y de la Biodiversidad determina que cualquier plan, programa o proyecto que, sin tener relación directa con la gestión de un lugar perteneciente a la Red Natura 2000 o sin ser necesario para la misma, pueda afectar de forma apreciable a las especies o hábitats de los citados espacios, ya sea individualmente o en combinación con otros planes o proyectos, se someterá a una adecuada evaluación de sus repercusiones en el espacio, que se realizará según las normas que sean de aplicación, de acuerdo con lo establecido en la legislación básica estatal y en las normas adicionales de protección dictadas por las comunidades autónomas, teniendo en cuenta sus objetivos de conservación.

El artículo 7.2.b) de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, establece que los proyectos no incluidos en sus anexos I y II que puedan afectar de forma apreciable, directa o indirectamente, a espacios protegidos Red Natural 2000 serán objeto de una evaluación de impacto ambiental simplificada, para la que se seguirá el procedimiento establecido en los artículos 45 al 48 de la ley. En el mismo sentido, el apartado 3 del anexo II.E de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, establece que serán objeto de una evaluación de impacto ambiental simplificada otros proyectos, distintos a los del anexo II.D, cuando, de forma directa o indirecta, solos o en combinación con otros planes, programas o proyectos, puedan afectar de forma apreciable a alguno de los espacios protegidos o que gocen de un régimen de protección, de conformidad con la normativa de conservación del patrimonio natural.

Por tanto, tras la realización del trámite de consultas especificado en el artículo 46 de la Ley 21/2013 y en el artículo 79.2 de la Ley 10/2021, corresponde a la Dirección General de Administración Ambiental emitir el informe de impacto ambiental, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo

EK\CV GAO-I-2025-07427

eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorriz, eta egindako kontsulten emaitza ikusita, zehaztu behar da ea Bidegi SAk kudeatutako AP-8an eta GI-20an zeharkako drainatze-lan batzuk birgaitzeko eraikuntza-proiektuak ondorio esanguratsuak izan ditzakeen ingurumenean, edo eragin nabarmena izan dezakeen Oriaren itsasadarreko KBEaren eta haren intereseko habitat eta espezieen helburuetan eta kontserbazio-egoeran, eta, beraz, ebaluazio-prozedura egin behar zaion; hala, aldiz, ez duen halako eraginik txostenean ezartzen diren baldintzetan.

2. *Egindako kontsultak.*

Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak proiektuaren eraginpeko edo interesdun diren honako administrazio, pertsona edo erakunde hauek identifikatu eta kontsultatu ditu, eta haien eskura jarri du sustatzaileak bidalitako dokumentazioa:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ondareko Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondareko Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— Elgoibarko Udala.

— Debako Udala.

— Donostiako Udala.

— Eibarko Udala.

— Usurbilgo Udala.

— Irungo Udala.

— Orioko Udala.

— Zestoako Udala.

— Donostiako Sustapena.

— Ihobe.

— URA (Uraren Euskal Agentzia).

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.

— Bidasoa Bizirik (Bidasoako Garapen Agentzia).

— Urola Kostako Udal Elkartea (Urola Kostako Garapen Agentzia).

— Iraurgi Berritzen (Urola Erdiko Garapen Agentzia).

— Debegesa (Debabarreneko Garapen Agentzia).

— ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).

— EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).

III de la Ley 21/2013 y en el anexo II.F de la Ley 10/2021, y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se debe de determinar si el proyecto de construcción para la rehabilitación de varias obras de drenaje transversal en la AP-8 y la GI-20 gestionadas por Bidegi S.A. (fase II). puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente o puede afectar de forma apreciable a los objetivos y al estado de conservación de la ZEC Ría del Oria y al de sus hábitats y especies de interés, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación de impacto ambiental ordinaria; o no los tiene en los términos que se establezcan en el informe.

2. *Consultas efectuadas.*

Esta Dirección General de Administración Ambiental ha identificado y consultado a las siguientes administraciones, personas e instituciones afectadas o interesadas, poniendo a su disposición la documentación remitida por el promotor:

— Dirección de Agricultura y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Montes y Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Dirección de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal del Gobierno Vasco.

— Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— Ayuntamiento de Elgoibar.

— Ayuntamiento de Deba.

— Ayuntamiento de Donostia.

— Ayuntamiento de Eibar.

— Ayuntamiento de Usurbil.

— Ayuntamiento de Irun.

— Ayuntamiento de Orio.

— Ayuntamiento de Zestoa.

— Fomento de San Sebastián.

— Ihobe.

— URA (Agencia Vasca del Agua).

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Bidasoa Activa (Agencia de Desarrollo del Bidasoa).

— Urola Kostako Udal Elkartea (Agencia de Desarrollo de Urola Kosta).

— Iraurgi Berritzen (Agencia de Desarrollo de Urola Erdia).

— Debegesa (Agencia de Desarrollo de Debabarrena).

— ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).

— EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).

EK\CV GAO-I-2025-07427

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki Talde Ekologista.

— Ekologistak Martxan Gipuzkoa.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologi Elkartea.

Halaber, dokumentazioa iragarri da eta eskuragarri egon da Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiaren interneteko atarian, publiko orokorrak eta edozein interesdunek ingurumenaren inguruan egoki iritzitako ekarpenak egin ahal izateko.

Epea bukaturik eta txosten hau egin den egunera arte, segidan aipatuko ditugun erantzunak eta ekarpenak jaso ditugu:

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du ingurumen-dokumentuak behar bezala jasotzen dituela kultura-ondarean izan ditzakeen ondorioak, zehazki, Donejakue bidean (Kostaldeko Ibilbidea).

— GFAko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritzak jakinarazi du proiektuak 13.852 m²-ko azalerari eragingo diola lanak egiten diren bitartean; horietatik 1.445 m² balio estrategiko handiko lurzoruei dagozkie, eta 297 m² interes publiko eta babesleko mendiei. Era berean, B-405 eta B-404-R zeharkako drainatze-lanetan, sarbideak –iraunkor bihurtuko da– basoen 722 m²-ri eta interes publikoko mendien 297 m²-ri eragiten die. Bestalde, ez da eraginik izango ez bideragarritasun ekonomikoan, ez nekazaritza-ustiapenen eraikin edo azpiegituretan. Amaitzeko, nekazaritza-lurzoruak kontserbatzeko eta kaltetuak izan daitezkeenak lehengoratzeko eta hobetzeko zenbait neurri proposatzen ditu. Era berean, konpentsazio-neurri batzuk proposatzen ditu.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi du proiektatutako jarduketak bere eskumen-eremutik kanpo daudela, eta, beraz, ez dela horri buruzko txostenik egin behar.

*3. 21/2013 Legearen III. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.F eranskinean ezarritako irizpideetan oinarritutako analisia.*

A. Proiektuaren ezaugarriak.

Aurkeztutako proiektuak Gipuzkoako GI-20 eta AP-8 errepideen bi aldeetan kokatutako zeharkako 17 drainatze-lani eragiten die. Zehazki, udalerri hauetan daude: 1 Irunen (D-461), 2 Donostian (C-438 eta C-433), 1 Usurbilen (C-418 R), 1 Orio/Usurbilen (C-452), 2 Orion (C-451 eta C-404), 3 Zestoan (B-436, B-413R, B-420), 3 Deban (B-408, B-405, B-404R), 3 Elgoibarren (A-401.A-403 eta 32) eta 1 Eibarren (PP2).

Zeharkako 17 drainatze-lanak Bilbo-Behobia autobidearekin batera eraiki ziren –1967 eta 1976 artean–, baina horietako zenbait handitu egin dira gerora edo aldaketak izan dituzte barnealdean eta ahokaduretan. B-405 izan ezik, hormigoizko galeria bat baita, gainerakoak, jatorrizko hodien kasuan, ARMCO motako altzairuzko hodiak dira (xafla korrugatuak).

Abian jarri zenetik denbora luzea igaro denez eta kolektore horien tipologia kontuan hartuta, 2018an 51 zeharkako drainatze-lan ikuskatu eta aztertu ziren haien egoera ezagutzeko, eta kolapso-maila batekin kategorizatu ziren (handia, ertaina, txikia eta oso txikia), jarduketei lehentasuna eman ahal izateko. 2021ean eta 2022an, kolapso handiko arriskua zuten zeharkako drainatze-lanei eta arrisku ertaina esleitu zitzaienetako batzuei ekin zitzaien, eta, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikaturako orain aurkezten den proiektu honekin, beste 17 egin nahi dira, guztiak arrisku ertainekotzat sailkatuak.

Aztertu diren proiektuaren alternatiba bakarrak 0 alternatiba edo ez jardutekoa eta ikuskapenean zeharkako drainatze-lanetan detektatu diren arazoak konpontzeko lanak egiteko aukera dira. 0 alternatiba baztertu da, kolapso-arriskuen gainean ez jardutea ekarriko bailuke, eta, beraz, GI-20 eta AP-8 errepideen segurtasuna arriskuan jar dezakeen egoera bat betikotuko bailuke. Al-

— Sociedad de Ciencias Aranzadi.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan Gipuzkoa.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologi Elkartea.

Asimismo, la documentación ha sido anunciada y ha estado accesible en el portal de internet de la Dirección General de Administración Ambiental para que el público general y cualquier interesado pudiesen realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo establecido y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas y aportaciones:

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que el documento ambiental recoge correctamente los posibles efectos sobre el patrimonio cultural, en concreto sobre el camino de Santiago (Ruta de la Costa).

— Dirección de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG informa que el proyecto afectará, de forma temporal durante el desarrollo de las obras, a una superficie de 13.852 m², de los cuales 1.445 m² corresponderá a suelos de alto valor estratégico y 297 m² a montes de interés público y protector. Asimismo, en las ODTs B-405 y B-404-R, el acceso, que se convertirá en permanente, afecta a 722 m² forestales y 297 m² de montes de interés público. Por otra parte, no habrá afecciones a la viabilidad económica ni a edificios o infraestructuras de explotaciones agrarias. Finaliza proponiendo una serie de medidas para la conservación de los suelos agrarios, así como para la recuperación y mejora de los que puedan ser afectados. Igualmente, propone una serie de medidas compensatorias.

— La Confederación Hidrográfica del Cantábrico comunica que, las actuaciones proyectadas, se encuentran fuera de su ámbito competencial, por lo que no procede informar sobre el mismo.

*3. Análisis en base a los criterios establecidos en el anexo III de la Ley 21/2013 y en el anexo II.F de la Ley 10/2021.*

A. Características del Proyecto.

El proyecto presentado afecta a 17 obras de drenaje transversal (ODTs) situadas a ambos lados de la GI-20 y la AP-8 en Gipuzkoa. Se localizan, concretamente, en los siguientes municipios: 1 en Irun (D-461), 2 en Donostia-San Sebastián (C-438 y C-433), 1 en Usurbil (C-418 R), 1 en Orio/Usurbil (C-452), 2 en Orio (C-451 y C-404), 3 en Zestoa (B-436, B-413R, B-420), 3 en Deba (B-408, B-405, B-404R), 3 en Elgoibar (A-401.A-403 y 32) y 1 en Eibar (PP2).

Las 17 obras de drenaje transversal se construyeron al mismo tiempo que la autopista Bilbao-Behobia –entre 1967 y 1976–, aunque varias han sufrido ampliaciones posteriores o modificaciones en su interior y embocaduras. Menos la B-405, que es una galería de hormigón, el resto, en el caso de los conductos originales, son tuberías de acero tipo ARMCO (chapas corrugadas).

Dado el amplio periodo de tiempo transcurrido desde su puesta en funcionamiento y la tipología de estos colectores, en 2018 se inspeccionaron y analizaron 51 ODTs para conocer su estado y se categorizaron con un nivel de colapso (alto, medio, bajo y muy bajo) para poder priorizar las actuaciones. Durante 2021 y 2022 se acometieron las obras de las ODTs con riesgo de colapso alto y parte de las ligadas a riesgo medio, y con este proyecto que hora se presenta para evaluación de impacto ambiental simplificada, se quiere abordar otras 17 pendientes, todas ellas clasificadas como de riesgo medio.

Las únicas alternativas del proyecto estudiadas es la alternativa 0 o no de actuación, y la alternativa de llevar a cabos trabajos que solucionen los problemas detectados en las ODTs durante su inspección. Se rechaza la alternativa 0, ya que supondría no actuar sobre los riesgos de colapso existentes y, por tanto, perpetuar una situación que puede comprometer la seguridad


EK\CV GAO-I-2025-07427

ternatiba horrek ez du eraginik izango obra-fasean, baina ustiapen-fasean izan ditzake, zeharkako drainatze-lan baten kolapsoak ondorioak izan baititzake goiko galtzadan, eta, GI-20 eta AP-8 errepideek arrisku handia eta oso handia dutenez salgai arriskutsuak garraiatzeagatik, istripurik gertatuz gero, ondorio kaltegarriak izango lirateke ingurumenean, eta ondorio horiek handiagoak edo txikiagoak izango lirateke, honako baldintza hauen arabera: inplikatutako ibilgailu mota, garraiatutako materiaren izaera, kantitatea, zer baldintzatan dagoen (presioa, tenperatura, estankotasuna), ingurunearen kalteberatasuna (biztanleria, lurzorua, ingurune hidrikoa) eta baldintza meteorologikoak.

Jarduteko alternatibari dagokionez, 2 teknika proposatu dira hautemandako arriskua konpontzeko: birgaitzea edo drainatze berri bat egitea, tinkatze bidez.

Ustiapen-fasean, aldiz, bi tekniketako batek ere ez du ingurumen-eraginik sortuko, eta uste da bultzada bidezko egikaritzeak, obra-fasean, inpaktu handiagoa izango duela birgaitzeak baino, arrazoi hauengatik:

— Lurzoru-azalera handiagoa hartuko du makineria kokatzeko, bai eta beharrezkoak diren sarbide eta instalazioetarako ere, eta, beraz, landaredi-azalera handiagoari eragingo dio.

— Eragin handiagoa izan lezake lurrazaleko uretan; izan ere, beharrezkoa da suteetako ur-hargunetik datozen urak erauztea –solido esekiak dituzte–, tratatuko ez balira, hartutako lurrazaleko urei eragin baitiezaiekete.

— Halaber, handiagoak izango lirateke fauna-habitatetan izan litezkeen eraginak, makinak eta langileak daudelako, urak kutsatzeko probabilitatea dagoelako eta zaratak eta bibrazioak daudelako.

— Hodi berria jartzeko erauzten diren lurrak kudeatu beharko dira.

Teknika baten edo bestearen aldeko azken erabakiak, batez ere, bisitagarritasun- eta irisgarritasun-irizpideei jarraitu die, Zeharkako Drainaduraren 5.2 IC Arauak 4.4.3.1 eta 6.2.2 puntuetan ezarritakoari jarraikiz. Lehenengoak (4.4.3.1 zk.) 1,80 metroko gutxieneko diametroa gomendatzen du 15 metroko edo gehiagoko luzera duten lan zirkularretarako, eta hori proiektu osoari aplika dakioke. Bigarrenak (6.2.2 zk.) ezartzen du zeharkako drainatze-lanek irisgarriak izan behar dutela langileentzat eta garbiketa-ekipoentzat.

Horrela, 1,80 metrotik gorako altuera librea duten zeharkako drainatze-lanak birgaitzea erabaki da, horietako batek ere ez baitu arazo aipagarririk historian zehar, eta gainerakoa tinkatze bidez egitea erabaki da, honako salbuespen hauekin:

— D-461. Birgaitu egingo da; izan ere, 1,80 m baino diametro txikiagoa (1,70 m) badu ere, ez da benetan zeharkako drainatze-lan bat, baizik eta kanalizazioak igarotzeko egindako galeria bat.

— A-401. 1,25 metroko diametroa du, baina edateko uraren hodi bat hurbil egoteak izugarri zailtzen du tinkatzea; izan ere, hodi horrek bermatzen du Elgoibarko udal-mugartearen zatirik handiena hornitzea, eta ezin da 8 ordu baino gehiago egon zerbitzutik kanpo.

— 32. 1,50 metroko diametroa du, baina ezponda harritsu malkartsu baten (ibaian gora) eta Bilbo-Donostia trenbidearen (ETS) artean kokatuta dagoenez, ezin da inolako tinkatzerik egin.

Ondorioz, azkenik, 7 zeharkako drainatze-lan berri gauzatu dira proiektuan sartutako 17 zeharkako drainatze-lan horietatik; zehazki, honako hauek: C-433, C-418 R, C-451, B-436, B-413R, B-404-R eta A-403.

Jarduketa mota horietako bakoitzerako erabilitako irtenbide zehatzei dagokienez, merkatuan daudenak aztertu ondoren, honako hauek hautatu dira:

de las carreteras GI-20 y AP-8. Aunque esta alternativa no presenta afecciones durante la fase de obras, si las podría tener durante la fase de explotación, ya que el colapso de una ODT, podría tener efectos en la calzada superior y, dado que las carreteras GI-20 y AP-8 presentan un riesgo alto y muy alto por transporte de mercancía peligrosas, en caso de accidente, se producirían efectos adversos sobre el medio ambiente con consecuencias mayores o menores en función del tipo de vehículo implicado, la naturaleza de la materia transportada, la cantidad, las condiciones en que se encuentre (presión, temperatura, estanqueidad), vulnerabilidad del entorno (población, suelo, medio hídrico) y las condiciones meteorológicas.

En cuanto a la alternativa de actuación, se han planteado 2 técnicas diferentes para resolver el riesgo detectado: rehabilitación o ejecución de un nuevo drenaje mediante hinca.

Mientras que, en fase de explotación, ninguna de las dos técnicas producirá afecciones ambientales, se considera que la solución de la ejecución mediante hinca tendrá, en fase de obras, un mayor impacto que la de rehabilitación debido a que:

— Ocupará una mayor superficie de suelo para ubicación de la maquinaria, así como para los accesos e instalaciones necesarias y afectará, por tanto, a mayor superficie de vegetación.

— Podría tener una mayor afección a las aguas superficiales, ya que es necesario la extracción de las aguas procedentes de la boca de ataque, cargadas de sólidos en suspensión, que, si no fueran tratadas, podrían afectar a las aguas superficiales que fueran alcanzadas.

— Serían también de mayor magnitud las posibles afecciones sobre los hábitats faunísticos por la presencia de maquinaria y personal, por la probabilidad de la contaminación de las aguas y por los ruidos y vibraciones.

— Hará necesario la gestión de las tierras que se extraigan para alojar el nuevo tubo.

La decisión final por una técnica u otra ha atendido, sobre todo, a criterios de visitabilidad y accesibilidad, siguiendo lo que establece la Norma 5.2 IC Drenaje Transversal en sus puntos n.º 4.4.3.1 y n.º 6.2.2. El primero (n.º 4.4.3.1) recomienda un diámetro mínimo de 1,80 m para obras circulares de longitud igual o superior a 15 m, circunstancia aplicable a todo el proyecto. El segundo (n.º 6.2.2) establece que las obras de drenaje transversal deben resultar accesibles para el personal y los equipos de limpieza.

De este modo, se ha optado por rehabilitar las obras de drenaje transversal cuya altura libre supera los 1,80 m, dado que ninguna tiene en su historial problemas reseñables de capacidad, y hacer el resto nuevas mediante hinca, con las salvedades siguientes:

— D-461. Se rehabilita, porque, aunque su diámetro es algo inferior a 1,80 m (1,70 m), no es verdaderamente una ODT. sino una galería ejecutada para el paso de las canalizaciones que presenta.

— A-401. Tiene un diámetro de 1,25 m, pero la proximidad de una tubería de agua potable, que es la que garantiza el suministro a la mayor parte del término municipal de Elgoibar, y que no puede estar fuera de servicio más de 8 horas, complica sobremanera la hinca.

— 32. Tiene un diámetro de 1,50 m, pero su disposición, encajada entre un talud rocoso abrupto (aguas arriba) y la línea férrea Bilbao-San Sebastián (ETS), impide cualquier tipo de hinca.

En consecuencia, finalmente, se han ejecutado 7 nuevas ODTs mediante hinca de las 17 incluidas en el proyecto, en concreto las siguientes: C-433, C-418 R, C-451, B-436, B-413R, B-404-R y A-403.

En cuanto a las soluciones concretas utilizadas para cada una de estos tipos de actuación, tras hacer un análisis de las existentes en el mercado, se ha optado por las siguientes:

EK\CV GAO-I-2025-07427

— Birgaitzeen kasuan, «kontragangaren» irtenbidea aukeratu da gehienbat, bi salbuespenekin: A-401ean, «manta geosintetikoa» erabili da, 1,50 metrotik beherako altuera duenez ezin delako «kontraganga» erabili, eta, B-405ean, berriz, hormigoizkoa izateagatik eta dituen kalteengatik, material horren egiturak birgaitzeko ohiko hainbat irtenbide konbinatu dira. «Kontraganga» soluzioa hodiaren beheko herena indartzean datza, in situ egindako hormigoi armatuzko estaldura baten bidez. Bildutako lanei dagokienez, teknikaren barruan honako hauek sartzen dira: hodiaren barne-perimetroaren garbiketa hidromekanikoa, korrosioaren aurkako babes-pintura bat aplikatzea, armadura beheko herenean jartzea eta, azkenik, kontraganga hormigoitzea. Bestalde, «manta geosintetikoarena» manta malgu bat ARMCO hodiaren beheko gainazalean zabaltzean datza, korrugen haranetan jarritako mortero-geruza batekin aldez aurretik erregularizatuta. Manta hori elementu malguz osatuta dago, eta elementu horiek erresistentzia-ahalmena hartzen dute atzeko fase batean hidratatzen direnean. Azkenik, B-405en kasuan, barrutik garbituko da presiopeko urarekin, lehen 25 metroetan (ibaian gora) biskositate txikiko erretxina injektatuko da dauden pitzaduren bidez, eta HEA 200eko zertxekin indartuko da (S 275 J2 W+N altzairua), metro bakoitzean behin, eta torlojuz lotuta akoplatuko dira (arkuaren eta euskarrien artean). Era berean, paramentuak (piñoiak, ganga, giza pasabidea eta kanala) lehengoratu egingo dira dauden altxatuak garbitu eta konpondu ondoren, eta plastikotasun handiko bi osagaiko zementu-mortero batekin tratatuko dira, iragazgaizteko eta agente erasokorretatik babesteko.

— Tinkatzeen kasuan, «ezkutu irekia» soluzioa erabiliko da. Sistema metalezko egitura bat, ezkutua, aurreratzean datza, hain zuzen. Egitura horrek hondeaketa-aurrealdea babesten du, eta lurra kolapsatzea saihesten du, hodi-segmentuak aurreraka bultzatzen diren bitartean. Ezkutuak aurrera egin ahala, hodi-sekzio berriak jarriko dira, egitura egonkorra osatuz. Bultza egiteko, erreakzio-bloke bat behar da, eta normalean, eraso-zulo bat. Lur motaren arabera, aldatu egiten dira eraso-aurrealdea induskatzeko prozesuak: ebaketa-burua, hondeatzeko edo marruskatzeko besoa, eta baita eskuz pikatzea ere. Detritua ateratzeko, uhal garraiatzaile batek edo erauzketa-uhal amaigabe batek kargatutako bagonetak erabiltzen dira.

Zeharkako drainatze-lanen diseinu-emariari dagokionez, tinkatzeetan, jabari publiko hidraulikoa osatzen dutenean 500 urteko errepikatze-denbora kalkulatu da, eta ez direnerako, berriz, 100 urteko errepikatze-denbora. Birgaitzeen kasuan, irizpide honi jarraitu zaio: errefortzuko edozein soluziok ez zuela edukiera hidraulikoa kaltetu behar.

Bestalde, tinkatze bidez berritzeak ordezten den zeharkako drainatze-lana deuseztatzea dakar. 418a bakarrik mantenduko da 500 urteko errepikatze-denborako uraldia hustu ahal izateko, eta berriarekin paraleloan funtzionatuko du (418R deituko zaio).

Lursailen okupazioari dagokionez, AP-8 eta GI-20 errepideen bi aldeetan aldi baterako okupazioak aurreikusten dira, lanerako behar diren elementuak instalatzeko (garbigunea, pilaketa-eremuak, aparkalekua, etxolak, etab.). Okupazio horrek, ingurumen-dokumentuaren arabera 16.586 m²-koa izango denak, honako lurzoru hauei eragingo die:

— AP-8/GI-20 errepideen plataforma eta Bidegi SAren jabetzako lursailak.

— Jabari publiko hidraulikoa.

— Irun, Donostia, Usurbil, Orio, Zestoa, Elgoibar eta Debako udaletako bide publikoak.

Obrak amaitu ondoren, okupatutako lurzoru gehienak aurreko egoerara itzuliko dira –ingurumen-azterketak lehengoratze-jarduketa aurreikusten du–, honako kasu hauetan izan ezik, horietan okupazio iraunkorra gertatuko baita:

— En el caso de las rehabilitaciones, se ha escogido mayoritariamente la solución de la «Contrabóveda», con dos excepciones: en la A-401, se ha utilizado la solución del «Manta geosintética», porque su altura inferior a 1,50 m no permite utilizar la de «Contrabóveda» y, en la B-405, que por ser de hormigón y por los daños que presenta, se han combinado diferentes soluciones típicas de las rehabilitaciones de estructuras de este material. La solución de «Contrabóveda» consiste en reforzar el tercio inferior del tubo mediante un revestimiento de hormigón armado ejecutado in situ. En cuanto a los trabajos englobados, la técnica comprende la limpieza hidromecánica del perímetro interior de la tubería, la aplicación de una pintura de protección frente a la corrosión, la colocación de la armadura en el tercio inferior y, finalmente, el hormigonado de la contrabóveda. Por su parte, la de «Manta geosintética» consiste en la extensión de una manta flexible sobre la superficie inferior del tubo ARMCO, previamente regularizada con una capa de mortero dispuesta en los valles de las corrugas. Dicha manta está formada por elementos flexibles que adquieren capacidad resistente al hidratarse en una fase posterior. Finalmente, en el caso de la B-405, se limpiará interiormente con agua a presión, se inyectará, en los primeros 25 m (aguas arriba), resina de baja viscosidad a través de las fisuras existentes y se reforzará con cerchas de HEA 200 (acero S 275 J2 W+N), una cada metro, que se acoplarán en el tajo por medio de uniones atornilladas (entre arco y soportes). Asimismo, los paramentos (hastiales, bóveda, paso de hombre y canal) se restaurarán a partir del saneo y la reparación de los desconchones existentes y, se tratarán con un mortero cementoso bicomponente de elevada plasticidad, para impermeabilizarlos y protegerlos de los agentes agresivos.

— En el caso de las hincas, se utilizará la solución del «Escudo abierto». El sistema consiste en avanzar una estructura metálica, el escudo, que protege el frente de excavación y evita el colapso del terreno, mientras se empujan segmentos de tubería en tramos continuos hacia adelante. A medida que el escudo avanza, se colocan nuevas secciones de tubería, formando una estructura estable. Se necesita un macizo de reacción contra el cual empujar, y habitualmente un foso de ataque. Dependiendo del tipo de terreno varían los procesos para excavar el frente de ataque: cabezal de corte, brazo excavador o rozador, incluso picado manual. La extracción del detritus se realiza por medio de vagonetas cargadas por una cinta transportadora o un sinfín de extracción.

Respecto al caudal de diseño de las ODTs, en las hincas, cuando constituyen Dominio Público Hidráulico se ha calculado para 500 años de periodo de retorno, mientras que las que no son, tiene una recurrencia de 100 años. En el caso de las rehabilitaciones, se ha seguido el criterio de que, cualquiera de las soluciones de refuerzo, no debían suponer un menoscabo de la capacidad hidráulica.

Por otra parte, la renovación mediante hinca implica la anulación de la ODT que se sustituye. Solo la 418, se mantendrá para permitir el desagüe de la avenida de 500 años de retorno y funcionará en paralelo con la nueva, que recibirá la denominación de 418R.

En cuanto a la ocupación de terrenos, mayoritariamente están contempladas ocupaciones temporales a ambos lados de las carreteras AP-8 y GI-20 para instalar los elementos necesarios para el trabajo (punto limpio, zonas de acopio, aparcamiento, casetas, etc.). Esta ocupación, que el documento ambiental estima en 16.586 m² afectará a los suelos siguientes:

— Plataforma de la AP-8/GI-20 y terrenos propiedad de Bidegi, S.A.

— Dominio Público Hidráulico.

— Viario público de los ayuntamientos de Irun, San Sebastián, Usurbil, Orio, Zestoa, Elgoibar y Deba.

Una vez finalizadas las obras, estos suelos ocupados retornarán mayoritariamente a su estado anterior –el estudio ambiental prevé actuación de restauración–, excepto, en los siguientes casos, en los que se producirá una ocupación permanente:

EK\CV GAO-I-2025-07427

— B-405, B-404-R eta B-404-R-BIS zeharkako drainatze-lanak (tinkatze bidez berritutako obra, aurrekoa ordeztuko duena). Zeharkako drainatze-lan horietan jarduteko, sarbide bat sortuko da, haien irteera-ahoraino eramango duena, eta autobidearen azpitik igarotzen den eta Azti baserrian amaitzen den auzo-bidean hasiko dena. AP-8 autobideko lursail publikoetatik igarotzen da. Sarbidearen garrantziagatik, eta etorkizunean kontserbazio- eta mantentze-lanetarako balio izan dezan, zoladura jartzea aurreikusi da. 3 metroko zabalera izango du, eta 1.019 m² inguru hartuko ditu.

— 7 zeharkako drainatze-lan berrietarako sarrera- eta irteera-ahoak, tinkatze bidez berrituko direnak. Eragindako azalera 150 m² ingurukoa izango da guztira.

Proiektuaren xede diren 17 zeharkako drainatze-lanak 4 sortatan multzokatu dira, obren premia, hurbiltasuna eta antzekotasuna irizpidetzat hartuta. Era berean, ingurumen-irizpideak hartu dira kontuan; izan ere, jarduketa batzuk urteko aldi jakin batzuetan baino ezin dira egin, hegoaldeko zuhaitz-igelaren (Hyla meridionalis) edo bisoi europarraren (Mustela lutreola) Garrantzi Ekologikoko Eremuen barruan daudelako, eta horrek zurruntasun nabarmena dakar sorten plangintzan. Horregatik, murrizketa horiek modu homogeneoan banatu dira, lanen programazioa optimizatze aldera. 1. eta 2. sortak osatzen dituzten zeharkako drainatze-lanak tinkatze bidez berrituko dira, B-405 izan ezik; izan ere, azken horrek, konponduko den arren, sarbidea partekatzen du inguruko B-404-Rarekin, eta 3. eta 4. sortetakoak birgaitu egingo dira.

Proiektua gauzatzeko epea 37 hilabetekoa izango da. Sorta bakoitza amaitzean hartuko dira obrak, eta berme-epea 1ekoa izango da.

B. Egikaritze-eremuaren ingurumen-sentikortasuna.

«Aurrekariak» atalean azaldu den bezala, 17 zeharkako drainatze-lanetatik 2 –C-451, exekuzio berrikoa, eta C-452, birgaitzekoa– Oriaren itsasadarra KBEaren barruan daude; zehazki, irteera-ahoak Aginagako urtegitik 100 metro baino gutxiagora daude, ibaian gora. Sakonune txiki bat da, ikuspen gutxikoa, A-8 autobidearen hegoaldean kokatua, eta EAEko Hezeguneen LPSaren inbentarioan sartuta dago. Burualdean haltzadia dago, eta ertzetan, berriz, ondo garatutako landaredi helofitikoa.

Hauek dira Oriaren itsasadarra KBEan kontserbatu beharreko funtsezko elementuak, proiektuaren eragin-eremutik gertu daudenak:

— 91E0 Batasunaren lehentasunezko intereseko habitata (Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior espezieen baso alubialak). 20.000 m² inguruko azalera du, eta proiektuak 238 m² inguruari eragiten die.

— 4030 habitata: Europako sektoreko txilardiak: proiektatutako jarduketetatik 100 metro ingurura dago landare-gune bat, eta, beraz, ez dago aurreikusita hari eragitea.

— 6510 habitata: altitude baxuko sega-belardi pobreak. Ez da aurreikusten horietan eragitea.

Bestalde, B-405, B-404R-BIS eta B-408 zeharkako drainatze-lanak beste eremu babestu baten barruan daude: Euskal Kostaldeko Geoparkearen barruan. B-405 eta B-408 birgaitu egingo dira, eta, aurreko atalean esan den bezala, B-404R-BIS instalazioa berriz egingo da tinkatze bidez. Zeharkako drainatze-lan horien gaineko jarduketa bakar batek ere ez dio eragingo eremu horretako ondare geologiko, natural eta kultural garrantzitsuari, zeina jasota baitago Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko martxoaren 18ko Aginduan. Agindu horren bidez, argitara eman zen Euskal Kostaldeko Geoparkearen nazioarteko izendapena eta Geoparkeen Europako Sarean eta Unescok lagundutako Geoparke Nazionalen Munduko Sarean sartzea.

— ODTs B-405, B-404-R y B-404-R-BIS (obra renovada mediante hinca que sustituirá a la anterior). Para la actuación sobre estas ODTs se creará un acceso que llevará hasta la embocadura de salida de las mismas y que se iniciará en el camino vecinal que, pasando bajo la autopista, termina en el caserío Azti. Está trazado por terrenos públicos pertenecientes a la AP-8. Por la entidad del acceso, y con idea de que pueda servir en el futuro para los trabajos de conservación y mantenimiento, se ha previsto su pavimentación. Tendrá una anchura de 3 metros y supondrá una ocupación de unos 1.019 m².

— Las bocas de entrada y salida a las 7 nuevas ODTs que se renovarán mediante hinca. La superficie afectada supondrá aproximadamente unos 150 m² en total.

Las 17 ODTs objeto del proyecto se han agrupado en 4 lotes, obedeciendo a criterios de urgencia, proximidad y semejanza de las obras. También, se ha tenido en cuenta criterios medioambientales, en el sentido de que varias de las actuaciones, por situarse dentro de las Áreas de Importancia Ecológica (AIE) de la ranita meridional (Hyla meridionalis) o del visón europeo (Mustela lutreola), solo pueden ejecutarse en determinados periodos del año, lo que introduce una notable rigidez en la planificación de los lotes. Por ello, se han distribuido estas restricciones de manera homogénea, de cara a optimizar la programación de los trabajos. Las ODTs que integran los lotes 1 y 2 se hacen nuevas mediante hinca, con la excepción de la B-405, que, aunque se repara, comparte acceso hasta la embocadura de salida con la B-404-R cercana, mientras que las de los lotes 3 y 4 se rehabilitan.

El plazo total de ejecución del proyecto será de 37 meses. La recepción de las obras se efectuará al término de cada uno de los lotes, fijándose un plazo de garantía de un 1.

B. Sensibilidad ambiental del ámbito de ejecución.

Como ya se ha expuesto en el apartado «Antecedentes», 2 de las 17 ODT –la C-451 que es de nueva ejecución y la C-452 que se rehabilita–, se ubican dentro de la ZEC Ría del Oria, en concreto, sus bocas de salida, se sitúan a menos de 100 m aguas arriba del embalse de Aginaga. Este es una pequeña depresión de escasa visibilidad, situada al sur de la autopista A-8 que está incluida dentro del inventario del PTS de Zonas Húmedas de la CAPV. En su cabecera conserva aliseda y en las márgenes, vegetación helofítica bien desarrollada.

Los elementos claves objeto de conservación en la ZEC Ría del Oria que se encuentran en las cercanías del área de afección del proyecto son los siguientes:

— El hábitat de interés comunitario prioritario 91E0 (bosques aluviales de Alnus glutinosa y Fraxinus excelsior). Con una superficie de unos 20.000 m², el proyecto afecta aproximadamente a 238 m².

— El hábitat 4030: brezales sector europeos: hay una mancha a unos 100 m aguas debajo de las actuaciones proyectadas, por lo que no está prevista su afección.

— El hábitat 6510: prados pobres de siega de baja altitud. No está prevista su afección.

Por otra parte, las ODTs B-405, B-404R-BIS y el B-408, se encuentran dentro de otro ámbito protegido: el Geoparque de la Costa Vasca. La B-405 y la B-408 se rehabilitan mientras que, como se ha dicho en el anterior apartado, la B-404R-BIS es de nueva ejecución mediante hinca. Ninguna de las actuaciones sobre estas ODTs afectarán al patrimonio geológico, natural y cultural relevante de dicho ámbito recogido en la Orden de 18 de marzo de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se dio publicidad a la designación internacional del Geoparque de la Costa Vasca, y su incorporación en la Red Europea de Geoparques y en la Red Mundial de Geoparques Nacionales ayudada por la Unesco.

EK\CV GAO-I-2025-07427

Batasunaren intereseko landarediari eta habitatei dagokienez, Oriaren itsasadarra KBEaren barruan ez dauden aurreikusitako jarduketen eremuan, formazio hauek nabarmendu daitezke:

— 6510 habitata (altitude baxuko sega-belardi pobreak). D-461, C-433, C-418R eta B-420 zeharkako drainatze-lanetan.

— 91E0 habitata. C-404 eta B-420 zeharkako drainatze-lanetan.

— Quercus robur nagusi den baso azidofiloa. C-433, C-418R, B-436, B-420, B-408, B-405 eta B-404R, A-403 zeharkako drainatze-lanetan.

Jarduketa-eremuan intereseko fauna-aleak egoteko aukerari dagokionez, kontuan hartu behar da AP-8 eta GI-20 errepideen bi aldeetan dagoela. Bi errepideek Gipuzkoako errepide-sare osoko zirkulazio-mailarik altuenak jasaten dituzte –2024an, 34.648ko EBBIa erregistratu zen AP-8rako, eta 48.816koa GI-20rako–, eta hori inguruan dauden soinu-maila altuekin ere lotuta dago –75 dbA baino handiagoak dira–, eta, horren ondorioz, faunak eremu lasaiagoetara eta giza jarduerako foku horietatik urrunago dauden eremuetara mugitzeko joera izango du. Hala ere, zeharkako drainatze-lan batzuk bat datoz fauna mehatxatua kudeatzeko planetan sartutako interes bereziko eremuekin; zehazki, honako hauek:

— Hegoaldeko zuhaitz-igelaren hedapen-eremu potentziala. Irunen, Donostian, Usurbilen eta Orion dauden zeharkako drainatze-lanak hegoaldeko zuhaitz-igela eta intereseko beste anfibio batzuk –hala nola txantxalet arrunta, uhandre palmeatua, baso-igel berde arrunta, etab.– har ditzaketen zenbait putzutatik hurbil daude. Ingurumen-dokumentuak egiten duen azterketan, hegoaldeko igelaren presentzia Arrateko putzuan baino ez da baieztatzen, non C-418-R zeharkako drainatze-lanetik zirkulatzen duten urak batzen baitira, 200 metro baino gutxiagora. Udalerri horietan dauden zeharkako drainatze-lanetatik gertu dauden gainerako putzuetan, honako hauetan intereseko beste anfibio batzuk egon daitezkeela baino ez da aipatzen: C-438, C-433 eta C-40.

— Bisoi europarraren interes bereziko eremua. 3 zeharkako drainatze-lan daude bertan: C-431R, B-408 eta B-420, Deba eta Zestoako udalerrietan, hurrenez hurren. Bi kasuetan, birgaitzea planteatzen da. Ingurumen-dokumentuaren arabera, nahiz eta ez den baztertzen hura egotea, ez dirudi oso probablea denik.

Gainazaleko hidrologiari dagokionez, ingurumen-dokumentuak barne hartzen du URAk Bidegik egindako kontsultari emandako erantzuna, hau da, ea proiektuan jasotako zeharkako drainatze-lanak jabari publiko hidraulikoan edo ibilguak zaintzeko eremuan dauden eta zer baldintza bete beharko lituzketen konponketa-obrak eginez gero. Agentziaren txostenak jasotzen duen taularen arabera, zeharkako drainatze-lan gehienak jabari publiko hidraulikoan daude, eta, beraz, administrazio hidraulikoaren baimena eskatu beharko da egin beharreko jarduketetarako. Honako hauek dira salbuespen bakarrak: D-461, C-438, C-451, A-401 eta 32a.

Kultura-ondareari dagokionez, proiektuko zeharkako drainatze-lanetako batekin (C-404) bat datorren elementu bakarra Donejakue bidea da (kostaldeko ibilbidea). Bide hori Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dago, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den zatia Monumentu Multzoaren kategoriako Kultura Ondasun Kalifikatu izendatzen duen urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez (urtarrilaren 27ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 19. zk.). Dekretu hori 2021eko ekainaren 1eko Ebazpenaren bidez aldatu zen.

Azkenik, ingurumen-arriskuei dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

— Higadura-arrisku handiak. Honako zeharkako drainatze-lan hauek muturreko higadura-prozesuak dituzten lurzoruen gainean daude: D-461, C-438, C-452, C-451, C-404, A-401 eta PP2.

— Akuiferoak kutsatzeko arriskua. Akuiferoen kutsadurarekiko oso kalteberak diren lursailekin partzialki bat egiten duen zehar-

Por lo que respecta a la vegetación y hábitats de interés comunitario, en el ámbito de las actuaciones previstas que no se ubican en el interior de la ZEC Ría del Oria, se pueden resaltar las siguientes formaciones:

— El hábitat 6510 (prados pobres de siega de baja altitud). En las ODTs D-461, C-433, C-418R Y B-420.

— El hábitat 91E0. En las ODTs C-404 y B-420.

— Bosque acidófilo dominado por Quercus robur. En las ODTs C-433, C-418R, B-436, B-420, B-408, B-405 y B-404R, A-403.

En cuanto a la posible presencia de ejemplares de fauna de interés en la zona de actuación, hay que tener en cuenta que, la misma, se ubica a ambos lados de las carreteras AP-8 y GI-20. Ambas carreteras soportan los niveles más altos de circulación de toda la red de carreteras de Gipuzkoa –en 2024, se registró una IMD de 34.648 para la AP-8 y 48.816 para la GI-20 respectivamente–, lo que va asociado también a niveles sonoros elevados en sus proximidades –superiores a los 75 dbA–, que provocarán que la fauna tienda a desplazarse hacia zonas más tranquilas y alejadas de estos focos de actividad humana. Sin embargo, algunas de las ODTs, coinciden con áreas de interés especial incluidas en los planes de gestión de fauna amenazada, en concreto las siguientes:

— Área de expansión potencial de la ranita meridional. Las ODTs ubicadas en Irun, Donostia, Usurbil y Orio se encuentran más o menos cercanas a varias charcas que pueden albergar ranita meridional y otros anfibios de interés, como el sapo partero común, el tritón palmeado, la rana verde común, etc. En el análisis que realiza el documento ambiental, solo se confirma la presencia de la ranita meridional en la charca de Arrate donde confluyen, a menos de 200 m, las aguas que circulan por la ODT C-418-R. En el resto de las charcas cercanas a las ODTs situadas en esos términos municipales, solo se cita la probable presencia de otros anfibios de interés en las siguientes: C-438, C-433 y C-40.

— Área de interés especial del visón europeo. Existen 3 ODTs en la misma: C-431R, la B-408 y la B-420, en los términos municipales de Deba y Zestoa respectivamente. En ambos casos se plantea su rehabilitación. Según el documento ambiental, aunque no se descarta su presencia, no parece muy probable.

En lo que se refiere a la hidrología superficial, el documento ambiental incluye la respuesta de URA a la consulta que hizo Bidegi sobre si las ODTs incluidas en el proyecto están en dominio público hidráulico o en zona de policía de cauces y las condiciones que deberían cumplir en el caso de realizar obras de reparación. Según la tabla que incorpora el informe de la agencia, la mayoría de las ODT se encuentran en dominio público hidráulico y por tanto se tendrá que pedir la autorización de la administración hidráulica para las actuaciones a realizar. Las únicas excepciones son las siguientes: D-461, C-438, C-451, A-401 y la 32.

En cuanto al Patrimonio Cultural, el único elemento que coincide con una de las ODT del proyecto –la C-404– es el Camino de Santiago (Ruta de la Costa), incluido en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco, mediante Decreto 2/2012, de 10 de enero, por el que se califica como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 19, de 27 de enero), modificado por Resolución de 1 de junio de 2021.

Finalmente, en relación a los riesgos ambientales, se pueden citar los siguientes:

— Riesgos altos de erosión. Las siguientes ODT se sitúan sobre suelos en los que existen procesos erosivos extremos: D-461, C-438, C-452, C-451, C-404, A-401 y PP2.

